

Eta hala iritsi zen osteguna. Antza, eguzkiak irri egiteko gogoan zuten, eta Iratik ere gauza bera egiten zuten etxeke lehoan. Urubiaren bisitak alaitu zion gaua, eta gaur ere naturaren berri izango zuela jakiteak, bihotza piztu.

Nabaritzen zuten: begiak ere aldatu egin zitzaizkion. Etxetik natura ikusten eta irakurtzen zuten orain: gereziondoa ikusi zuten loretan. Txantxangorria hegan adarrik adar, eta kanpandorrea etxeetako teilatuen gainetik ageri zen. Han behar zuten urubiak. Pozik zegoen, bera etxean izan arren, natura aurrera zihoalako.

Hala zegoela, etxeke hormara bideratu zituen begiak, eta zirrikitu batetik buru txiki eta zapal bat ikusi zuten ateratzen: Horma-sugandila zen.

Txikia bezain azkarra. Azkarra bezain bizia mugimenduetan. Kolore marroi, horixka eta beltzek estaltzen zuten bere gorputza, eta isats luze eta eder batek laguntzen zion orekari eusten.

- Egun on, horma-sugandila. Nolaz hemen? - Galdetu zion Iratik.
- Urteak daramatzat zuten etxeke horman bizitzen, baina begiak ez dituzu prest izan ni ikusteko. Gaur, ordea, adi egon zara. Eguzkiak esnatu nau, eta bere goxotasunak piztu, eta zu ere hala zaude, natura ikusteko begiak jarrita, Irati.
- Bihar ez natzaizu ni etorriko, baina segi leihotik behatzen. Mugimenduak ikusten eta usainak sumatzen. Martxoan aurrera doa, eta egun hauetan, ezusteko eder bat baino gehiago izango ditugu...



Ausartu zure marrazkia sortzera!

Eta hala iritsi zen osteguna. Antza, eguzkiak irri egiteko gogoa zuen, eta Iratik ere gauza bera egiten zuen etxeko leihoan. Urubiaren bisitak alaitu zion gaua, eta gaur ere naturaren berri izango zuela jakiteak, bihotza piztu.

Nabaritzen zuen: begiak ere aldatu egin zitzaizkion. Etxetik natura ikusten eta irakurtzen zuen orain: gereziondoa ikusi zuen loretan. Txantxangorria hegan adarrik adar, eta kanpandorrea etxeetako teilatuen gainetik ageri zen. Han behar zuen urubiak. Pozik zegoen, bera etxean izan arren, natura aurrera zihoalako.

Hala zegoela, etxeko hormara bideratu zituen begiak, eta zirrikitu batetik buru txiki eta zapal bat ikusi zuen ateratzen: Horma-sugandila zen.

Txikia bezain azkarra. Azkarra bezain bizia mugimenduetan. Kolore marroi, horixka eta beltzek estaltzen zuten bere gorputza, eta isats luze eta eder batek laguntzen zion orekari eusten.

- Egun on, horma-sugandila. Nolaz hemen? - Galdetu zion Iratik.
- Urteak daramatzat zuen etxeko horman bizitzen, baina begiak ez dituzu prest izan ni ikusteko. Gaur, ordea, adi egon zara. Eguzkiak esnatu nau, eta bere goxotasunak piztu, eta zu ere hala zaude, natura ikusteko begiak jarrita, Irati.
- Bihar ez natzaizu ni etorriko, baina segi leihotik behatzen. Mugimenduak ikusten eta usainak sumatzen. Martxo aurrera doa, eta egun hauetan, ezusteko eder bat baino gehiago izango ditugu...

